

**Fleming Herri Eskolak jangela in situ jartzeko proiektua aspaldiko martxan jarri du. Gai hau jorratzeko Amasa Villabonako Alkateak eta Eskolako Komunitateak Begoña Pedrosarekin, Hezkuntza Sailburuarekin, bilera egin behar duelakoan gaude.**

Jesus Maria Quesada Hilingerrek, Amasa Villabona herrian dagoen Fleming Herri Eskolako zuzendariak, Eskolako Komunitatearen izenean eta Flemingo Eskola Kontseiluaren izenean, Villabonako Udalari eta bere Udalbatzari jakinarazi nahi dio:

- 2024ko urtarrilaren 31an Amasa Villabonako Udalbatzak Fleming Herri Eskolako Arratzainen eraikuntzean sukaldea egiteko proposamenarekin bat egin zuen.
- Hori dela eta, Udalbatzak sukaldea sortzeko prozesuan beharrezkoak izango diren baliabide pertsonal, tekniko zein ekonomikoak jartzeko konpromisoa onartu zuen (egun horretan egindako eskaeraren 4. puntua)
- Hainbat aldiz Hezkuntza Sailak Aiztondo bailaran zonaldeko sukaldea egiteko asmoa adierazi digu. Hori dela eta, Aiztondoko beste udalek eta eskoletako Eskolako Kontseiluek ere zonako sukaldea egiteko eskaera egin zuten Hezkuntza Sailari, Zizurkil eta Asteasukoeak, besteak beste.
- Egun horretatik aurrera Fleming Herri Eskolak eman dituen pausuak puntu honetan hauexek izan dira:
  - Hezkuntza Sailako aparajadore bat sukaldea jarri behar den Arratzaingo espazioa neurtzera etorri zen.
  - 2024ko urrian Amaia Urzelairerekin, Gipuzkoako Hezkuntza Sailaren ordezkariarekin egindako lehendabiziko elkarrizketan Fleming Herri Eskolan Aiztondo zonaldeko sukalde egiteko proiektua martxan jartzeko asmoa duela adierazi zigan.
  - 2025eko otsailean zonako sukaldearen proiektua beste eskola batean egin behar dutela adierazi ziguten.
  - 2025eko maiatzan Amaia Urzelairerekin egindako bileran Euskadin zehar hainbat zonaldeko sukaldeak egiteko proiektuen asmoa bertan behera gelditu dela jakinarazi ziguten. Horren trukea, hainbat eskoletan beste motatako sukaldeak (sukalde bertikalak, espazio gutxiago behar duen sukalde bat) egiteko asmoa martxan jarriko duela.
  - Bilera horretan jakinarazi ziguten uda honetan Hezkuntza Sailak hainbat sukalde bertikala martxan jarri behar zituela, baina Fleming Herri Eskolak ez duela beharrezkoak diren baldintzak betetzen sukaldea hemen egiteko.
- Hau guztiaren aurrean, Begoña Pedrosa Hezkuntza Sailburuak 2025eko ekainaren 9an egindako adierazpenen arabera, Hezkuntza

Sailak hurrengo urteetan eskola jantokietako sukaldeen inguruan hainbat erabakiak hartzen ari dira:

- Hurrengo ikasturteetan sare publiko osoan pixkanaka in situ sukaldeak eta zonako sukaldeak jartzea aurreikusten dela.
- Sarre publikoko eskola jantokiak eraldatzeko 20 milioko inbertsioa aurreikusten den plan bat jarri dela martxan 2028 urte arte.
- 2025-26 ikasturterik aurrera zonaldeko hamar sukalde berri jarriko direla.
- 2025eko ekainaren 25ean Fleming Herri Eskolako Eskola Kontseilua egingo da. Puntu hau tratatuko da eta Amasa Villabonako Udaltzari egiten ari garen eskaera hau onartzeko asmoa dago (ez da aukerarik izan Eskola Kontseilua lehenago egiteko, baina hainbat irakasle eta familiekin dagoeneko hitz eginda dago)

Hau guztia esanda, Fleming Herri Eskolako komunitateak badaki eskola publikoetan sukaldeak in situ eraikitze oso une kritikoan dagoela eta hurrengo hilabeteetan Hezkuntza Sailak eskola publikoetan hainbat sukalde jartzeko erabakiak hartuko dituela. Eta egoera hau kontuan hartuta, Fleming Herri Eskolako Komunitateak Amasa Villabonako udaltzari eskaera hau luzatu nahi du:

1. Amasa Villabonako udaltzari, alkatearen izenean, Begoña Pedrosarekin, Hezkuntza Sailburuarekin, Fleming Herri Eskolan sukalde jartzeko proiektuaren inguruko **bilera egiteko eskaera ofiziala bideratzea lehenbailehen.**
2. Bilera hau irailaren lehendabiziko hamabostaldian egitea.
3. Bilera horretara Fleming Herri Eskolaren komunitatearekin joatea (zuzendaritza taldearekin eta hainbat familiekin).
4. Eskaera hau onartzeko, udaltzariaren arteko bozka egitea.

Hau dela eta, ekainak 26an egin behar den Udaltzaren plenoaren deialdian eskaera hau sartzea eskatu nahi dugu.

Villabona, 2025eko ekainaren 18an.

